

MUSEOAK



Gauza interesgarri asko ikas daitezke eskolan, liburuetan, kalean, lagunekin... Baina baita museoetan ere. Museo hitzak «musa-etxe» esan nahi du; garai bateko greziarren esanean, inspiratzeko toki bat.

Museoetan, historiako garai askotako eta munduko hainbat tokitako altxorak zaintzen eta gordetzen dituzte. Ikusgai ipintzean, altxor horien abenturak eta sekretuak partekatzen dituzte gurekin.

Gainera, museoak beti egoten direnez irrikaz gauza berriak kontatzeko, aldi baterako erakusketak antolatzen dituzte. Erakusketa horietan, normalean gordeta edukitzen dituzten objektuak ateratzen dituzte, eta beste museo batzuei ere eskatzen dizkiete maileguan, mundu osoko gauza berezietz goza dezagun.

Dakizuenez, museo-mota asko daude; artelaneanak, bilduma zientifikoenaak, pieza bakar eta paregabeenaak... Baita animalienak ere! Eta haietan guztietan topatuko ditugu ahoa bete hertz utziko gaituzten istorioak. Ez da beharrezkoa bisitek denbora luzez irautea, ezta museo txoko guztiak arakatzea ere; nahikoa da haien altxorren batekin liluratuta geratzeko gogoz sartzea.

Bisitatuko dugu gure hirian daukagun museoren bat?



M1 MOTAKO GAZTELUA

Zergatik deitzen da Motako Gaztelua?

Mota hitzak muino txikia esan nahi du gaztelaniaz. Toki paregabea da gaztelu bat altxatzeko; izan ere, urrunean zer dagoen ikusteko eta itsasoa kontrolatzeko aukera ematen du.



Motako Gazteluaren barruan, Historiaren Etxea dago, eta, han, ezagutu ahalko dugu zer-nolakoa izan den donostiarren bizitza hiriak dituen 800 urteetan baino gehiagotan.

Baina gaztelu bat da?

Halaxe da; handia edo garrantzitsua ez dirudien arren, benetako gaztelu bat da. Gazteluak defentsarako gotorleku militarrik dira, etsaiek


harrapatu ez gaitzaten. Kasu askotan —eta horixe da gurea ere—, gazteluetan ez dira bizi errege-erreginak, edo printze-printzesak... Baizik eta hiria defendatzen duten soldaduak.

Eta horrelaxe erabili da gure gaztelua ehunka eta ehunka urtez, ia XX. mendera iritsi arte. Imajinatu zeinen garrantzitsua izan den gaztelu hori gure historian.


Gaztelu hori itsas mailatik 130 metroko altueran dago, eta, 1950az geroztik, Jesusen Bihotzak koroatuta dago.

Nahi baldin baduzue, hemen eskura dezakezue Urgull mendiari buruzko informazio gehiago.





Donostia oso leku berezian dago, Pirinioetako kostaldeko mendebaldeko muturra baita.



Mende luzeetan, horrek oso interesgari egiten zuen, bi arrazoirengatik:



Merkataritza-zubi gisa funtzionatzen zuen, salgaiak hiri batetik bestera eraman ahal izateko.



Zaintza-toki gisa balio zuen, inbasioak eta ezusteko erasoak saihesteko Iberiar penintsulan. Horrexegatik eraiki zen hemen Motako Gaztelua.



Joris Hoefnagelk eginiko Donostiako grabatu bikain honek gure hiria 1560an nolakoa zen erakusten digu. Ikusten duzu alderik gaur egungo hiriarekin?

Gaztelua eta frantsesak

Donostia beti egon da Frantziarekin oso lotuta, eta Urgull mendia izan da harreman horretako gertakari garrantzitsuenen lekuko.

Kontatuko dizkizugu gertakari horietako bi?

1719ko uztailearen 4an, Berwickeko dukearen agindupeko gudaroste frantses erraldoi batek Donostia setiatu zuen, eta hiribilduari eraso egiten hasi ziren. Azkenean, abuztuaren 1ean, biztanle guztiek Motako Gazteluan babestu behar izan zuten. Egun hartan, Donostiako Udalak amore eman zuen. Baina ez zuen gauza bera egin gazteluarekin, eta Berwickek bonbardatzen jarraitu zuen. Gotorleku hark defentsarako gaitasun ikaragarria zeukan; izan ere, bi astez baino gehiagoz etengabe bonbardatu ondoren, Berwickek erretiratzea erabaki zuen, konbentziturik baitzegoen menderagaitza zela toki hura.

Baina kontakizun hura ez da amaitzen nahiko genukeen

moduan; izan ere, handik egun batzuetara —abuztuaren 17an—, sute bat piztu zen gazteluaren armategian, zeina azkar zabaldu baitzen. Suaren ondorioz, herritarrek irten egin behar izan zuten, eta amore eman frantsesen aurrean. Hala, frantsesak Motako Gazteluan sartu ziren, eta bi urtez menderatu zuten, harik eta 1721eko abuztuaren 26an alde egin zuten arte.

1794an izan zen Urgullen hiria lehena kapitulazioa frantsesen aurrean, eta 1813an, etsipenak jota, ikusi zuten hiria suak kiskali zuela, Frantziako tropek Ingalaterrako eta Portugalgo Armadaren aurka izaniko batailaren ondorioz.

Gazteluaren aurkako bonbardaketak etengabe gertatu ziren irailaren 8ra arte: orduan amore eman zuten han barruan bizi ziren 1.836 soldadu frantsesek, eta ingelesen preso bihurtu ziren. 1.836 lagun! Imajinatzen zenbat pertsona?

BITXIKERIA!

Ondo moldatzen al ziren soldaduak eta donostiarrak? Ez dizuegu esan erantzun erraza denik, baina esango dizuegu harreman horretatik sortu zela danborrada.

Danborradako jantzi askok historia bitxia dute atzean; esate baterako, Jesuiten ikastetxeak 1813ko Motako Gazteluko artillarien uniforme bera eramaten du.





BITXIKERIA!

*Gazteluko kanpaia
Motako Gazteluaren beste elementu
bitxi bat kanpandorrea da, zeina
Lehen Karlistaldian eraiki baitzen
(1833-1840), herritarrei
alarma-seinalea emateko etsaien
tiroak gertatzen zirenean.*

*Dirudienez, 14 segundo igarotzen
ziren kanpaia joarazten zuen
kanoikadaren distiratik,
jaurtigaiak hirian jotzen zuen arte.
Beraz, denbora horixe zuten
herritarrek beren burua babesteko.
Noraino iritsiko zinatekete 14
segundoan?*

dezagun gehixeago...

Donostiako Udalak 1921an erosi zion gure Urgull mendi maitea armadari, eta Motako Gazteluaren egitura militar guztiak eraitea erabaki zuen, parke bihurtzeko. Hala ere, Santiagoko kuartela eraisteko eztanda eragin zutenean, kalkulu-akats batek Leiva ingeniaria hil zuen. Ondorioz, ez zituzten amaitu eraispen-lan guztiak, eta horrexegatik ikus ditzakegu gaur egun mendiko egitura militarak.

Hain zuzen ere, 1963tik aurrera, gure hiria suntsitu zutela 150 urte bete zirenean, Donostiako Udalak iritziz aldatu zuen, eta orain buru-belarri lan egiten du Motako Gaztelu berreskuratzeke

eta birgaitzeko, eta, horrenbestez, elementu tradizional guztiei eusteko.

la ez dugu hitz egin gazteluko gotorlekuaz!

la mendi osoa hartzen duten harresiek, begiratokiek eta iturriek gauza asko dituzte kontatzeko.

Gainera, XV. mendetik XX. mendera bitarteko kanoi bilduma ikaragarria dago.

Gai horri buruz gehiago jakin nahi baduzu eta ibilbide guztiak egin nahi badituzu, sartu hemen:





M2 SAN TELMO MUSEOA

San Telmo Museoa Donostiako udal museoa da, bai eta Euskal Herriko zaharrena ere. Euskal Herriaren historia, kultura eta bizimoduak erakusten ditu. Guztira 35.000 pieza inbentariatu baino gehiago ditu, hainbat kategoriatan: etnografia, arte ederrak, argazkia, arkeologia eta historia.

Horretaz gainera, oso museo aktiboa da, eta gure Agenda Txikian aurki ditzakezun jarduerak eta tailerrak antolatzen ditu. 1924an, Urgull mendiarekin batera, Donostiako Udalarri saldu zioten garai bateko San Telmo monasterioa. 1928an, Artilleriako kuartel izateari utzi zion eta, eraberritze-lan batzuk egin ondoren, udal-museo bihurtu zen 1932an. Azken handitze arkitektonikoa 2011n egin zen, eta hauxe da gu guztiok ezagutzen dugun museoa.

ONLINEKO MUSEOA:



*Museoaren webgunea:
santelmomuseoa.eus*



*Aukeran duzu,
orobat,
online ezagutzeko,
hiru minutuko bideo
honen bidez.*



*San Telmo museoaren
APPA: erakusketa
iraunkorrean.*



*Second Canvas San
Telmo Museoa:
Bildumaren zati bat
bereizmen
superhandian ikusi
ahalko duzu.*

San Telmo museoa izan da beti?

San Telmo nabigatzaileen eta arrantzaleen patroia da, eta, gurearen tankerako portu-hiri batean, beti egon da oso presente.

1539an, Alonso Idiakez —Karlo I.aren errege-idazkaria izan zen— eta haren emazte Gracia Olazabali esker, San Telmo komentu domingotarra sortu zen.

Hain eraikin handia izanik, urteetan zehar hainbat funtziotarako erabili zuten komentu hori:



Konbentzio gerran, 1793 eta 1795 bitartean, ospitale gisa gaitu zuten.

Independentzia Gerran (1808-1814), hilobiak eta aldareak arpilatu zituzten, eta domingotarrek erabaki zuten artilleria-kuartel gisa alokatzea, kalteak konpontzeko dirua bildu ahal izateko.



1836an, Mendizabalen Desamortizazioaren ondorioz, domingotarrak irten egin ziren komentutik. Artilleriaren kuartela izandakoa kuartel militar izatera igaro zen, eta eraikin osoa hartu zuen.

Museo donostiar-donostiarra


XIX. mendearen amaieran, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen izeneko elkarte bat zegoen. Talde hark erakusketak egiten zituen hainbat lekutan, eta, oso denbora gutxian, sekulako arrakasta izan zuten. Hainbestekoa, ezen espazio bat eskatu baitzioten Donostiako Udalari, udal-museo bat sortzeko.



Herria izugarri inplikatu zen, eta berehalaxe ireki ahal izan zuten Andia eta Garibai kaleen arteko bidegurutzean zegoen museoa (G4). Baina partikularren erosketa eta ekarpen berriei esker, lokala txiki geratu zen oso denbora gutxian.



Pentsa dezakezuenek, museoak hazten jarraitu zuen, eta leku falta arazo bihurtu zen berriro. Hala, 1932an San Telmo komentu domingotarrera eraman zuten museoa, eta hantxe jarraitzen du gaur egun ere.



Hain diru gutxi zutenek, ezinezkoa zen balio handiko erakusketak egitea, eta orduko alkateak proiektu horretan laguntzeko eskatu zien donostiarrei, artelanak dohaintzan emanez eta museoan gordez.



1911n inauguratu zen gaur egun Correosen zentral gisa ezagutzen dugun eraikina, Urdaneta kalean. Hantxe kokatu ziren hasiera hartan Arte eta Lanbide Eskola, Udal Liburutegia eta Udal Museoa.





M3 EUSKAL ITSAS MUSEOA

Donostiako portuan bertan dago, eta 1991n inauguratu zuten. Mendeetan zehar euskaldunek eta itsasoak izaniko historia kontserbatzeaz, aztertzeaz eta zabaltzeaz arduratzen da, eta nabarmentzekoa da itsasontzien eraikuntza.

ERAIKINAREN HISTORIA:

Donostiako Kontsulatuak sortu zuen dorretxea, kaiko eta portuko jarduera kontrolatzeko. Hiriko harresiak ixten zituztenean, kontsuletzeko tenientea bakarrik geratzen zen, eta agintari hark eginkizun hauek izaten zituen:

- Itsasontzien sarrerak eta irteerak zaintzea.
- Amarratze-zergak kobratzea.
- Zamalanak kontrolatzea.
- Kaiak eta hondoak egoera onean edukitzea.
- Kai eta itsasontzietako ordena eta segurtasuna zaintzea.
- Itsas laguntzak.
- Nautika-eskola.




Euskal Itsas
Museoaren
webgunea

Zer egiten du museoak?

Euskal Itsas Museoak itsasoarekin lotutako objektuak berreskuratzen eta kontserbatzen ditu, eta haien historia ikertzen jarduten du. Museoko bildumak 6.000 pieza baino gehiago ditu dagoeneko, eta, horrekin guztiarekin, erakusketak eta jarduerak sortzen ditu, itsas mundua guztiokin partekatzeko.

Tailerrak, erakusketak, estropadak, filmak, bisita komentatuak... Gauza asko izaten da. Jarraitu haien pistari!



BITXIKERIA!

Mirakruz kaleko buzoa

Agian inoiz ez zenuen ikusiko honelako buzorik. Ingalaterran eraiki zen XX. mendeko 30eko hamarkadan, eta horrelaxe jaisten ziren itsas hondora. 1936tik gurekin izan dugu.

Aitona-amonei galdetzen badiezu, gogoratuko dute Groseko EMICA industria-hornigaiaren dendan egoten zela. 1993tik, Euskal Itsas Museoan bisita dezakegu, baita haren historia ezagutu ere.





M4 AQUARIUMA- ITSAS JAUREGIA



Donostiako Aquariuma 1928an inauguratu zen, eta Espainian itsas zientzia naturalei eskainitako lehen museoa izan zen. Historia osoan zehar, etengabe berrasmatu da, eta harro esan dezake Europako ozeanografia-museorik modernoenetako bat dela. Horretaz gainera, nazioarteko erreferentzia da itsas munduaren ikerketan, hedapenean eta erakusketan.

Berez gauza asko topa ditzakegu aquariumean, baina batez ere hauek nabarmenduko ditugu:

1. Euskal balea baten eskeletoa.
2. 200 arrain-espezie baino gehiago dituzten akuarioak.
3. Eta, nola ez, «marrazotegia».

BITXIKERIA!

«Marrazotegia» 360°-ko tunel bat da, eta 40 arrain espeziez eta bost marrazo motaz inguratuta paseatzeko aukera ematen digu.



Astearte, ostegun eta larunbatetan, 12:00etan, Aquariumeko urpekariak ikus daitezke Ozeanarioko marrazoei jaten ematen.

Balea-eskeleto oso donostiarra


Aquariumeko altxorretako bat zera da, sartu bezain laster topatzen dugun euskal balea baten eskeletoa. Hamabi metro neurtzen ditu.

Imajinatzen duzu zer izango litzatekeen hura itsasoan ikustea?

Baleak, dakizun bezala, oso lotuta daude euskaldunekin eta itsasoarekin duten harremanarekin; izan ere, euskaldunak izan ziren baleak arrantzatzen lehenak, ondoren produktuak saltzeko.

Adibidez, XI. mendean:

- Balea-mihi errea oso plater berezia zen.
- Balea-haragia saldu egiten zen elikadurarako.
- Balea-koipetik eskuratutako olioak argiztapenean erabiltzen zen.



BITXIKERIA!

Ba al zenekien gure kostaldean harrapatutako baleen koipearekin argitzen zituztela Parisko kaleak?



Euskal baleazaleak hain izan ziren trebeak, ezen Atlantikoko txokorik urrunenetara iritsi baitziren.

Balea hori oso garrantzitsua da, gure kostaldean harrapatu zen azken-aurrekoa izan baitzen. 1878ko otsailaren 11n, zenbait itsasontzi abiatu ziren Getaria, Zarautz eta Oriotik harrapatzeko. Balea Getariako ontzi batetik

arpoitu zuten, baina Zarauzko kostaldean. Ez zuten lortzen akordiorik, gorpua Donostiara ekarri zuten eta, azkenean, usteldu egin zen.



BITXIKERIA!

Kantauri itsasoan bizi ziren euskal baleen hiru eskeleto baino ez daude osorik:

- 1. lehenengoa Donostiako Aquariumean dago;*
- 2. bigarrena, Kopenhagen;*
- 3. eta hirugarrena, azkenik, Napolin aurki dezakegu.*





Donostiako Aquariumak beti egin izan du ikerketa-lan handia. 1947an, esate baterako, egunero hasi ziren neurtzen itsasoko temperatura, eta, horri esker, Euskadi osoko erregistrorik osoena dugu.

Aquariumaren eta Gipuzkoako Ozeanografia Elkartearen historia

1903an, Alberto I.a Monakokoak Donostia bisitatu zuen. Haren helburua zen ozeanografia garatzea eta itsaspeko topografia, meteorologia, korrontek, itsasoaren biologia eta abar aztertzea.

Horri esker, arrantza hobetu nahi zuen, eta, horrenbestez, arrantzaleen eta nabigatzaileen bizimodua ere bai. Berehalaxe bihurtu zen leku enblematiko, kutunetan kutuna gipuzkoar guztiarentzat.





M5 TABAKALERA

Tabakalera ez da museo bat, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa baizik. Bertan, ekitaldi, jarduera eta tailer kultural asko egiten dituzte, eta libre da haietan parte hartzea.

Tabakaleraren helburua da kultura-sorkuntza garaikidea sustatzea eta donostiar guztiengana hurbiltzea.

Zer zen aurretik?

1913an hiriko eraikin handienetako bat inauguratu zen: Tabakalera edo Estatuko tabako-fabrika. Emakumeek egiten zuten lan nagusiki, eta puruak eta zigarroak egiten zituzten. Tabako-fabrika 90 urtez egon zen martxan, 2003ra arte.

Eraikina 2011 eta 2015 artean berritu zen, baina fatxadak leial eusten dio jatorrizkoari.





M6 REAL100 MUSEOA

Real 100 Museoa 2009ko irailaren 7an ireki zen, Real Sociedad Club de Fútbol sortu zela ehun urte bete ziren egunean.

Futbola maite baduzue, hortxe ezagutu dezakezue gure taldearen historia, Realarena, oso modu bisual eta desberdinean.

Besteak beste, gure taldearen garaipen garrantzitsuenak ikus ditzakegu:

- Espainiako Ligako bi titulu (1980/1981 eta 1981/1982 denboraldietan).
- Bi Errege Kopa (1909 eta 1987 denboraldietan).

Horretaz gainera, museoa futbol-zelaian bertan dagoenez, estadioan zehar bira bat ere egin daiteke.



Museoaren zatirik handiena futbolari eskainia badago ere, aurki dezakegu gune bat klubeko gainerako kirol diziplinetarako ere: atletismoa, emakumezkoen eta gizonezkoen hockeya, pilota, urpeko jarduerak eta emakumezkoen futbola. Diziplina horietako askok arrakasta handia izan dute beren historian. Animatzen zara ezagutzera?





M7 EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA



Diberfitu zientziarekin Eureka! Zientzia Museoan

Donostiako zientzia-museoak erakusketa iraunkor bat dauka, gaien araberako zortzi aretotan banaturik. Gainera, Logik aretoan jarduera teknologikoak egiten dituzte robotika eta programazioarekin, LEGO materialak baliatuz.

Astronomiazale amorratua bazara, Eureka! Zientzia Museoan planetario digital bat daukazu, eta bidaia egin ahal izango dituzu eguzki-sisteman barrena, kupula bete-betean.

Animalia aretoan, hiru giro berezi daude irudikatuta: oihan tropikala, basamortua eta itsasoa, itsas urmael baten bidez. Bertan, hiru ekosistema horietako hogeitazaz eguztu ahal izango dituzu.

Azkenik, 300 m²-ko espazio bat dago zenbait simulazioekin: MAXFLIGHT hegaldi-kabina bat, errealitate birtualeko simulagailuak. Eta ez ahaztu Errusiar Mendira igotzea!

Kanpoko lorategietan, maketa-multzo bat ikus daiteke, Gipuzkoako ondare-erakinek biltzen dituenak.



**Eureka! Zientzia Museoaren
webgunea**



M8 MUSEUM CEMENTO REZOLA

Ziur nago askotan entzun duzuela hormigoitari buruz hitz egiten, baina, ez dakizuen arren, hormigoia gure planeta eraldatzeko gai izan den asmakizun berria da. Zer da hormigoia? Eta zementua? Nola erabiltzen da? Nondik ateratzen da? Galdera asko sortzen zaizkigu, eta horiexek argitzen dituzte museo honetan.

Museum Cemento Rezola toki paregabea da zementuak gure historian duen garrantzia deskubritzeko, eta bertatik bertara ezagutu daitezke material liluragarri horren aurrerapenak, hiri jasangarriagoak eta politagoak sortzeko.



Museum Cementos
Rezolaren webgunea





M9 CHILLIDA LEKU

Chillida Leku museo bakarra da, berez baita artelan handi bat. Lorategi erraldoi bat da, eta, bertan, Eduardo Chillida eskultore donostiarraren ehun lan baino gehiago aurki ditzakegu, baita Zabalaga baserri zaharra ere, urte askoan bertan bizi izan baitzen.

Hain da ederra, ezen ez baitago hura ikusteko ibilbide jakinik: tipi-tapa ibiltzea da kontua, intuizioari jarraikiz. Oinez goazen heinean, altzairuzko, hormigoizko eta harrizko eskultura handiak topatuko ditugu parez pare. Sekulako tokia da: hain daude integratuta paisaian, ezen ematen baitu bertantxe daudela betidanik.

Museo honetan biltzen, katalogatzen eta gordetzen dira Eduardo Chillidaren lanarekin lotutako dokumentazio eta jarduera guztiak. Artista osoa eta garrantzitsua izan zenez, egun ere haren lana ikertzen eta aztertzen jarraitzen dute.



BITXIKERIA!

Ba al zenekien Chillida Realeko atezain izan zela? Belauneko lesio baten ondorioz, erretiratu egin behar izan zuen.

Chillidaren esanean, badu antzekotasunik futboleko atezaina izateak eta eskultorea izateak. Esaten zuen atezainek oso intuitiboak izan behar dutela, oso ondo kontrolatu behar dituztela espazioa eta denbora, eta asko pentsatu behar dutela. Horixe bera egiten zuen eskulturagintzan jarduten zuenean.



Chillida Lekuren
webgunea



M10 ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA

Albaola ez da museo bat, baizik eta nazioarteko ontziola-museo-eskola bat. Leku paregabea eta magikoa da, eta egun guztiak desberdinak izaten dira bertan.



*Albaolak abentura
liluragarri eta
ezezagun bat berpiztera
gonbidatzen gaitu.
Animatzen zara
bisitatzera?*



Bertan zaharberritu dituzte Gipuzkoa eta halako ondare-ontziak, salbamendurako Espainiako lehenbiziko ontzi motorduna, eta patatx edo ontzi kortsario bat ere eraiki dute. Baina, horretaz gainera, San Juan galeoiaren erreplika bat eraikitzen ari dira Albaolan, ikerketa zientifikoetan oinarritua. San Juan XVI. mendeko ontzi handi bat da, Pasaian eraikia eta Kanada aldean hondoratua, orain zenbait mende. Albaolak abentura liluragarri eta ezezagun bat berpiztera gonbidatzen gaitu.

